


Erretiro

KONTRIBUTIBOKO MODALITATEEI BURUZKO GIDA.

Itsasoko Araubide Berezia.



AURKIBIDEA

- Sarrera.
- Erretiro arrunta.
- Erretiro aktiboa.
- Erretiro partziala.
- Erretiro malgua.
- Nahi gabeko erretiro aurreratua.
- Borondatezko erretiro aurreratua.
- Atzerapena erretiroan.
- Nora jo behar dut erretiroa eskatzeko?
- Araudia.



SARRERA

Gizarte Segurantzaren sistema Espainiako gizartearen zutabe nagusia da, eta haren bidez sendotu eta garatu da herritarrentzako ongizate-sistema eraginkorra. Hirugarren adineko herritarren babes integrala gure Gizarte Estatuaren printzipio gidarietako bat da, eta, bereziki, erretiroa Gizarte Segurantzaren sistemaren kezka nagusietako bat izan da.

1995etik, Toledoko Itunaren barruan, eragile politiko eta sozial guztiak epe laburreko erabakien bidez babes sozialeko eskubideak murriztu ez daitezen, eta etengabeko elkarriketaren eta ahalik eta adostasun handienaren esparruan egon daitezen zaintzen ari dira. Toledoko Itunaren Batzordeak bere gomendioak egin ditu botere publikoek pentsioen arloan hartu behar dituzten erabakiak hartzeko oinarriak ezartzeko. Izan ere, **Gizarte Segurantzako Sistemak bilakaera demografikoak eragindako aldatetara —bizi-itxaropena handitzea eta jaiotza-tasak pixkanaka murriztea— egokitu behardu**; horren ondorioz, zahartzea, biztanleriaren piramidearen egitura tradizionalaren inbertsioa eta, azken batean, biztanleria aktiboarekiko pentsiodunen mendekotasun-tasaren aldaketa ematen ari da.

Ilido horretan, asko dira bizitza aktiboa sustatzea eta erretiro aurreraturako pizgarriak ez ezartzeko egin diren arau-erreformak —**nabarmentzekoa da abenduaren 28ko 21/2021 Legea**—. Horrela, egungo agertokiak aukera ugari eskaintzen die langileei, **erretiratzeko, zahartzeko edo, besterik gabe, jubilatze**ko garaia iristen zaienean, egoera berrira igarotzeko.

Gainera, berritasun gisa, pentsioen amatasun-osagarriaren ordez osagarri berri bat jarri da, **Gizarte Segurantzaren Sistemako pentsio kontributiboetan genero-arrakala murrizten laguntzeko.**

Gida honen bidez, Itsasoko Gizarte Institutuak, Itsasoko Langileen Gizarte Segurantzako Araubide Bereziaren Erakunde Kudeatzailea den aldetik, erretiroaren inguruan gure legeriak eskaintzen dituen aukerak zabaltzeko eta ezagutarazi nahi dizkie beren bizitzan hain garrantzitsua den gertaera honetatik hurbil dauden itsasoko langileei.

ERRETIRO ARRUNTA

Zertan datza erretiro-pentsioa?

Erretiro-prestazioa biziarteko pentsioa da, eta Gizarte Segurantzako Sistemak langileari aitortzen dio, legez ezarritako adinera iritsita, lan-jarduera uzten duenean.

Nortzuk izan daitezke Itsasoko Araubide Bereziko erretiro-pentsioaren onuradun?

Itsasoko Langileen Gizarte Segurantzako Araubide Berezia barne hartuta dauden pertsonak, afiliatuta eta altan edo altaren pareko egoeran badaude, eta lege ezarritako baldintza hauek betetzen badituzte: adina, gutxieneko kotizazio-aldia eta gertaera eragilea.


Onuradunak izango dira, halaber, gertaera eragilearen datan Itsasoko Langileen Gizarte Segurantzako Araubide Berezian alta emanda edo altarekin parekatutako egoeran ez dauden Gizarte Segurantzako Sistemako langile afiliatuak, betiere ezarritako adin- eta kotizazio-eskakizunak betetzen badituzte.

Zein da erretiro-pentsioaren gertaera eragilea?

Oro har, erretiro-pentsioaren gertaera eragilea interesdunak eskabidean adierazitako datan emango da, baldin eta eskaera aurkeztu aurreko edo ondorengo hiru hilabeteen barruan badago, edo eskaera horrekin bat badator, eta interesdunak horretarako behar diren eskakizunak betetzen baditu.

Interesdunak eskabidean adierazitako data hartuko da kontuan egoera (alta, parekatua edo altarik eza) eta pentsioa jasotzeko eskubidea duen ala ez erabakitzeko oinarri izango diren gainerako inguruabarrak zehazteko, baita, hala badagokio, pentsioaren edukia zehazteko ere; kasu bakoitzean ondorio ekonomikoak izan behar dituen data alde batera utzi gabe.

Betebehar horretatik salbuetsita daude nazioarteko arau baten arabera Espainiako lurraldetik kanpo aurkeztutako eskabideak, horiek aurkezten diren herrialdeko legerian aurreikusitako epean aurkeztu beharko baitira.



“Erretiro-prestazioa bihurtzeko pentsioa da, eta Gizarte Segurantzako Sistemak langileari aitortzen dio, lege ezarritako adinera iritsita, lan-jarduera uzten duenean.”

Zein adinetatik aurrera har dezaket erretiroa?

Erretiro-pentsioa eskuratzeko adina interesdunaren adinaren eta lan-bizitzan metatutako kotizazioen arabera da, eta honako adin hau beteta izatea eskatzen du:

- **67 urte edo**
- **65 urte honako hau egiaztatzen denean: 38 urte eta 6 hilabeteko kotizazioa.**

Aurreko paragrafoan aipatutako erretiro-adinak eta kotizazio-aldia mailaz maila aplikatuko dira, honako taula honetatik ondorioztatzen diren baldintzetan:

Urtea	Kotizatutako aldiak	Eskatutako adina
2022	37 urte eta 6 hilabete edo gehiago	65 urte
	37 urte eta 6 hilabete baino gutxiago	66 urte eta 2 hilabete
2023	37 urte eta 9 hilabete edo gehiago	65 urte
	37 urte eta 9 hilabete baino gutxiago	66 urte eta 4 hilabete
2024	38 urte edo gehiago	65 urte
	38 urte baino gutxiago	66 urte eta 6 hilabete
2025	38 urte eta 3 hilabete edo gehiago	65 urte
	38 urte eta 3 hilabete baino gutxiago	66 urte eta 8 hilabete
2026	38 urte eta 3 hilabete edo gehiago	65 urte
	38 urte eta 3 hilabete baino gutxiago	66 urte eta 10 hilabete
2027tik aurrera	38 urte eta 6 hilabete edo gehiago	65 urte
	38 urte eta 6 hilabete baino gutxiago	67 urte

Erretiro-adina murriztu dezaket Itsasoko Araubide Berezian jarduera jakin batzuk eginez gero?

Itsasoko Araubide Berezian, lan jakin batzuetan erretiro-adinaren koefiziente murriztaileak daude itsasoko lanak dituen gogortasun, nekagarritasun-baldintza, urruntasun eta abarrengatik; koefiziente horiek erretiro-adina 10 urte arte murriztea ahalbidetzen dute, 65 edo 67 urteko adin orokorrarekiko, egiaztatutako kotizazio-aldiaren arabera.

Aplikatzen diren koefiziente murriztaileak aldatu egiten dira ontzi motaren, nabigazio moten eta lanaren izaeraren arabera, urriaren 5eko 1311/2007 Errege Dekretuan aurreikusitakoa kontuan hartuta. Errege Dekretu horrek Itsasoko Langileen Gizarte Segurantzako Araubide Bereziko erretiro-pentsioa zehazteko irizpide berriak ezartzen ditu.

Erretiro-adina murrizten den aldia kotizatutzat hartzen da, oinarri arautzaileari aplikatu beharreko ehunekoa zehazteko soilik. Bai adin-murrizketa bai aldi horren zenbaketa aplikatuko dira ehunekoaren ondorioetarako, nahiz eta pensioa Gizarte Segurantzako beste edozein erregimenetan sortu.

Gutxienezko kotizazio-aldi bat eskatzen da erretiro-pentsioa eskuratzeko?

Bai, gutxienez 15 urteko kotizazio-aldia egiaztatu behar da, eta horietako bik, gutxienez, eskubidea eragin aurreko 15 urteen barruan egon behar dute.

Norberaren konturako langileen kasuan, gainera, Gizarte Segurantzari ordaindu beharreko kuotak egunean izatea eskatuko da.



Nola kalkulatzen da erretiro-pentsioaren zenbatekoa?

Pentsioaren zenbatekoa zehazteko, kotizatutako urteen arabera dagokion ehuneko orokorra aplikatuko zaio oinarri arautzaileari.


“Pentsioaren zenbatekoa zehazteko, kotizatutako urteen arabera dagokion ehuneko orokorra aplikatuko zaio oinarri arautzaileari.”

- **Oinarri Arautzailea. (OA)**
2022tik aurrera, gertaera eragilearen aurreko hilabetearen aurreko 300 hilabeteetan interesdunaren kotizazio-oinarriak zati 350 eginda ateratzen den zatidura izango da OA.
- **Ehunekoa.**
Ehunekoa aldakorra da Gizarte Segurantzaren kotizatutako urteen arabera; 15 urtetan % 50arekin hasten den eskala aplikatzen da, hamaseigarren urtetik aurrera

% 0,19 handituz kotizatu den hilabete gehigarri bakoitzeko —1. eta 248. hilabeteen artean—, eta % 0,18, berriz, 248. hilabetetik gorakoak, OAri aplikatu beharreko ehunekoak % 100 gainditu gabe; pentsioa aplikagarria dena baino adin handiagoarekin eskuratzen denean izan ezik.

Hala ere, 2027. urtera arte, aldi iragankor eta mailakatu bat ezartzen da, eta, bertan, aurreko ehunekoen ordeztu, honako hauek ezarriko dira:

Gertaera Eragilearen urtea	Kotizatutako hil bakoitzeko igoera, lehenengo 15 urteen ondoren	% 100era iristen da kasu hauetan
2020tik 2022ra	1. hilabetetik 106. hilabetera: % 0,21 Hurrengo 146 hilabeteengatik: % 0,19	36 urte kotizatura
2023tik 2026ra	1. hilabetetik 49. hilabetera: % 0,21 Hurrengo 209 hilabeteengatik: % 0,19	36 urte eta 6 hilabete kotizatura



Nork du genero-arrakala murrizteko osagarria jasotzeko eskubidea?

Osagarri berri hori aitortuko zaie seme-alaba bat edo gehiago izan eta erretiro-pentsio kontributibo baten onuradun diren emakume eta gizonei. Bi gurasoetako bati bakarrik aitortu ahal izango zaio, eta 2021eko otsailaren 4tik aurrera emandako gertaera eragileei aplikatuko zaie.

Seme-alaba bakoitzeko osagarriaren zenbatekoa Estatuko Aurrekontu Orokorren Legean ezartzen da. Urte bakoitzaren hasieran igoko da, pensio kontributiboetarako aurreikusitako ehuneko berean. 2022. urterako, zenbatekoa hilean 28 eurokoa da seme-alaba bakoitzeko, eta muga zenbateko hori halako lau izango da gehienez.

Noiz hasiko naiz erretiro-pentsioa kobratzen?

Oro har, erretiro-pentsioaren gertaera eragilearen hurrengo egunetik aurrera.

Zeintzuk dira erretiro-pentsioaren bateraezintasunak?

Erretiro-pentsioa jasotzea bateraezina da honako hauekin:

- Pentsiodunak, besteren kontura edo norberaren kontura, Gizarte Segurantzako edozein erregimenetan sartzea eragiten duen edozein lan egitearekin, legez edo erregelamenduz ezartzen diren salbuespenak eta baldintzak kontuan hartuz.
- Herri-administrazioen zerbitzuko langileen bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legearen 1. artikuluko 1. apartatuko bigarren paragrafoan mugatutako sektore publikoan lanpostu bat betetzearekin (salbuespenak: unibertsitate-irakasle emerituak eta osasun-lizentziatu emerituak).
- Goi-karguak betetzearekin.

Zeintzuk dira aurreko bateraezintasunen bat izatearen ondorioak?

Pentsioa jasotzearekin bateraezinak diren lanak egiteak ondorio hauek izango ditu:

1. Erretiro-pentsioa eten egingo da, baita pentsiodunari dagokion osasun-laguntza ere.

2. Enpresaburuak alta eskatu eta, hala badagokio, dagozkion kotizazioak ordaindu beharko ditu.

Jarduera bateraezin bat egiteko nire erretiro-pentsioa eteten badut, kotizazio berriek zer ondorio dituzte nire erretiro-pentsioan?

Kotizazio berriek honako hauetarako balio dute:

- Hala badagokio, pentsioaren ohiko ehunekoa handitzeko.
- Laneko bizitza aktiboa erretiro-adin arruntetik haratago luzatzeagatik dagozkion portzentaje gehigarria sorrarazteko.
- Erretiro-adina aurreratu bada, aplikatutako koefiziente murriztailea jaisteko.
- Kotizazio berriek ezin dute, inola ere, oinarri arautzailea aldatu.

Ba al da erretiro-pentsioa lanarekin bateragarria den kasuren bat?

Erretiro-pentsioa jasotzea bateragarria izango da lan hauek egitearekin:

- Erretiro partziala.
(Ikus “ERRETIRO PARTZIALA”)
- Erretiro malgua.
(Ikus “ERRETIRO MALGUA”)
- Erretiro-pentsioa jasotzea bateragarria da norberaren konturako lanak egitearekin. Lan horien urteko guztizko diru-sarrerek ez dute LGS gaindituko, urteko zenbaketan. Jarduera ekonomiko horiek egiten dituztenak ez daude behartuta Gizarte Segurantzaren prestazioengatik kotizatzerara, eta ez dute eskubiderik sortuko Gizarte Segurantzaren prestazioen gainean.
- Negoziaren titulartasuna mantentzea eta titulartasun horri datzekion eginkizunak betetzea.
- Erretiro aktiboa.
(Ikus “ERRETIRO AKTIBOA”)

ERRETIRO AKTIBOA

Zertan datza erretiro aktiboa?

Erretiro aktiboa erretiro-pentsioaren eta besteren konturako edo norberaren konturako lanaren arteko bateragarritasun-modalitate bat da.

Erretiro-pentsioa, modalitate kontributiboan, bateragarria izango da pentsiodunak besteren kontura edo norberaren kontura edozein lan egitearekin, betiere honako eskakizun hauek betetzen badira:

- Pentsioa kasu bakoitzean aplikatzekoa den adina bete eta gutxienez urtebetera eskuratu beharko da. Ondorio horietarako, ez da onartuko interesdunari aplikatu ahal zaizkion hobarien, koefiziente murriztaileen edo erretiro-adina aurreratzearen ondoriozko erretirorik.
- Eragindako pentsioaren zenbatekoa zehazteko, dagokion oinarri arautzaileari aplikatu beharreko ehunekoa % 100era iritsi behar da.
- Lan bateragarria besteren kontura egin ahal izango da, lanaldi osoan edo partzialean, edo norberaren kontura.
- Onuraduna pentsioduna izango da ondorio guztietarako.

Zenbat kobratuko dut erretiro aktiboko egoeran?

Lanarekin bateragarria den erretiro-pentsioaren zenbatekoa hasierako aitorpenetik ateratzen den zenbatekoaren % 50en baliokidea izango da, behin, bidezkoa bada, pentsio publikoaren gehieneko muga aplikatuta, edo, lanarekin bateragarria izaten hasten denean, jasotzen ari denarena; alde batera utzita, nolanahi ere, gutxienekoengatiko osagarria, pentsiodunak egiten duen lanaldia edo jarduera edozein dela ere.

Hala ere, jarduera norberaren kontura egiten bada eta gutxienez besteren konturako langile bat kontratatuta duela egiaztatzen bada, lanarekin bateragarria den pentsioaren zenbatekoa % 100era iritsiko da.


Besteren konturako lan-harremana amaitzen denean edo norberaren konturako jarduera gauzatzeari uzten zaionean, erretiro-pentsioa osorik jasotzea berrezarriko da. Modu berean berrezarriko da norberaren konturako jarduera eteten denean, erretiro-pentsioaren % 100 lanarekin bateragarri egitea ahalbidetzen duten inguruabarrak ematen ez direnean.

Gizarte Segurantzari kotizatu behar dut erretiro aktiboan zehar?

Besteren konturako edo norberaren konturako lana egiten duten bitartean —erretiro-pentsioarekin bateragarria—, enpresaburuek eta langileek Gizarte Segurantzari kotizatuko dute aldi baterako ezintasunagatik eta kontingentzia profesionalengatik soilik, dagokion Gizarte Segurantzako sistemaren erregimena erregulatzen duen araudiaren arabera; hala ere, % 9ko elkartasun-kotizazio berezia izango dute —prestazioetarako ez da konputagarria izango—.

Besteren konturako langileen araubideetan, elkartasun-kotizazio hori enpresaburuaren eta langilearen artean banatuko da, % 7 enpresaburuaren kontura izango da, eta % 2 langilearen kontura.

“Erretiro aktiboa erretiro-pentsioaren eta besteren konturako edo norberaren konturako lanaren arteko bateragarritasun-modalitate bat da.”



ERRETIRO PARTZIALA

Zer eskakizun bete behar ditut erretiro partziala jaso ahal izateko?

Erretiro-modalitate hori besteren konturako langileentzat baino ez da, eta garatzeko dago norberaren konturako langileen kasuan.

Gainera, egiten zenuen lana lanaldi osokoa izan behar da. Lanaldi partziala duten langileek —aldizkako finkoak eta aldian behingo finkoak barne— ezin dute erretiro partziala hartu.

Eskakizunak desberdinak dira zure enpresak, zure erretiro partzialarekin batera, txanda-kontratu bat egiten duen ala ez kontuan hartuta:

Txanda Kontratuarekin:

Langabezian dagoen edo enpresarekin iraupen mugatuko kontratu bat hitzartuta duen langile batekin aldi berean txanda-kontratu bat egiteaz gain, honako eskakizun hauek bete behar dituzu gertaera eragilearen datan:

- Hurrengo taulan adierazten diren urteak eta hilabeteak beteta izatea, 2027ra arte ezarri den aldi iragankorreko urte bakoitzean egiaztatuta dituzun kotizazioaldien arabera. Aldi horretan 65 urtetan edo 63 urtetan finkatuko da 36 urte eta 6 hilabeteko kotizazioa egiaztatuarekin. Adin hori zenbatzeko, ez dira kontuan hartzen erretiro-adinaren koefiziente murriztaileak, ezta adinaren beste hobari batzuk ere.

Mutualista zarela egiaztatzen baduzu, erretiro partziala eskura dezakezu 60 urtetik aurrera.

“Erretiro-modalitate hori besteren konturako langileentzat baino ez da, eta garatzeko dago norberaren konturako langileen kasuan.”

Gertaera eragilearen urtea	Gertaera eragilean kotizatutako aldia	Eskatutako adina	Eskatutako adina baino kotizazio txikiagoarekin (gutxienez 33 urte)
2022	35 urte eta 6 hilabete edo gehiago	62 urte eta 2 hilabete	63 urte eta 4 hilabete
2023	35 urte eta 9 hilabete edo gehiago	62 urte eta 4 hilabete	63 urte eta 8 hilabete
2024	36 urte edo gehiago	62 urte eta 6 hilabete	64 urte
2025	36 urte eta 3 hilabete edo gehiago	62 urte eta 8 hilabete	64 urte eta 4 hilabete
2026	36 urte eta 3 hilabete edo gehiago	62 urte eta 10 hilabete	64 urte eta 8 hilabete
2027 eta hurrengoak	36 urte eta 6 hilabete	63 urte	65 urte



- Enpresan gutxienez aurreko 6 urteko antzintasuna egiaztatzea.
- Aldera daitekeen lanaldi osoko langile baten lanaldiaren % 25 gutxienez eta % 50 gehienez murriztuta izatea (langile errelebistaren lanaldiaren iraupenak, gutxienez, zure lanaldiaren murrizketaren berdina izan beharko du). Gehieneko hori % 75 izango da, langile errelebista lanaldi osoko kontratu mugagabearekin kontratatuta bada.

Lanaldi-murrizketari kalterik egin gabe, aurreikusita dago enpresaburuak eta langileak erretiro partzialean kotizatuko duzuela lanaldi osoan lan egiten jarraitu izan bazenu legokizukeen kotizazio-oinarriagatik. Hala ere, aldi iragankor bat ezartzen da kotizazio-oinarri (KO) berri hau pixkanaka aplikatzeko:

Urtea	Lanaldi osoaren gaineko KOaren ehunekoa
2022	95%
2023 eta hurrengoak	100%

- 33 urteko kotizazioa egiaztatzea (edo 25 urtekoa % 33ko desgaitasuna edo handiagoa ematen den kasuetan). Ondorio horietarako, nahitaezko soldadutza, ordezkoko gizarte-prestazioa edo nahitaezko emakumeen gizarte-prestazioa egiteko aldia bakarrik zenbatuko da, gehienez ere urtebeteko mugarekin.
- Langile errelebistaren KO ez izatea erretiro partzialeko pentsioaren oinarri arautzailearen (OA) azken 6 hilabeteetako dagozkien KOen batez bestekoaren % 65 baino txikiagoa.

- Ordezkatutako langile gisa erretiro-adinera iristeko falta zaizun denboraren adinako gutxieneko iraupena izatea txanda-kontratuak. Zure lanaldia % 75 murrizten bada, zure erretiro-adina bete eta hurrengo bi urteetan mantendu beharko da, gutxienez.

Kontratua lehenago azkentzen bada, enpresaburuak beste kontratu bat egin beharko du, iraungitakoaren baldintza beretan, geratzen den denborarako.

Era berean, kooperatiba bateko bazkide langilea edo lan-bazkidea bazara eta Itsasoko Araubide Berezian besteren konturako langile gisa sartuta bazaude, erretiro partziala har dezakezu, baldin eta kooperatibak iraupen mugatuko beste bazkide batekin edo langabe batekin itundu badu, bazkide langile edo lan-bazkide gisa, hutsik uzten duzun lanaldia egitea.

Enpresaburuak (edo kooperatibak, bazkide errelebigistaren kontratuari dagokionez) txanda-kontratuaren arloan ezarritako baldintzak betetzen ez baditu, lanaldi partzialeko pentsiodunak jasotako pentsioa itzultzeko ardura izango du.

Txanda Kontraturik gabe:

Zure enpresak edo enpresaburuak ez du txanda-kontraturik egin behar (nahiz eta borondatez egin dezakeen), kasu bakoitzean aplikatzekoa den erretiro-adin arrunta beteta eta erretiro-pentsioa jasotzeko eskubidea izateko eskakizunak beteta, erretiro partziala hartzen duzunean hutsik uzten duzun lanaldia ordeztzeko.

Gainera, aldera daitekeen lanaldi osoko langile baten lanaldiaren gutxienez % 25 eta gehienez % 50 bitartean murriztu behar da zure lanaldia.

Kasu horretan, erretiro partzialeko kotizazioa garatutako lanaldiaren proportzionala da.

Noiztik izango dut erretiro partziala kobratzeko eskubidea?

Lanaldi partzialeko kontratua sinatzeagatik —eta, hala badagokio, txanda-kontratuarekin batera— lehenago egiten zenuen lanaldia uzten duzun egunetik aurrera, baldin eta eskaera egun hori baino hiru hilabete lehenago edo geroago egiten baduzu; bestela, gehienez hiru hilabeteko atzeraeragina izango du.

Zenbat kobratuko dut?

Lanaldi partzialean egiten duzun lanaldiagatik kobratzea dagokizun soldadari kalterik egin gabe, erretiro partzialerako egiaztatzen duzun kotizazio-urteen arabera legokizukeen pentsioaren zenbatekoari lanaldi-murrizketaren ehunekoa aplikatuta ateratzen den zenbatekoa kobratuko duzu pentsio gisa, erretiro arruntaren arauen arabera kalkulatuta.

Ezarritako mugen barruan, urteko aldien arabera lanaldi-murrizketaren ehunekoa handitzea eska dezakezu, enpresaburuaren adostasunarekin, eta, hala badagokio, langile errelebistaren lanaldia luzatuz. Kasu horretan, zure pentsioa ehuneko horretan igoko litzateke.

Ez da atzerapenagatiko ehuneko gehigarriarik aplikatzen erretiro partziala ohiko adinetik gora hartzen denean; halaber, ez da adinaren araberrako koefiziente murriztailerik kontuan hartzen. Era berean, ez da ehuneko gehigarriarako eskubiderik sortzen erretiro partzialeko aldian (ikus “ATZERAPENA ERRETIROAN”).

Erretiro osoa ematen denean, zer ondorio dituzte erretiro partzialean egindako kotizazioek?

Kotizazio-oinarriak —lanaldi partzialeko aldiari dagozkionak— % 100eraino igota hartuko dira, baldin eta erretiro partziala txanda-kontratuarekin batera hartzen bada.

Hala, erretiro osoaren oinarri arautzailea kalkulatzeko, erretiro partzialaren aldia txanda-kontratu batekin batera gertatu denean eta, beraz, kotizazio-oinarriei gehikuntzaren onura aplikatu behar zaienean, oinarri arautzailea erretiro arrunta hasten den datari dagokionez kalkulatu da, eta benetako kotizazio-oinarriak igoerarekin zenbatuko dira, hala badagokio.

“Urteko aldietarako
lanaldi murrizketa
ehunekoaren igoera
eska dezakezu,
ezarritako mugen
barruan.”

Erretiro partziala ezein alditan txanda-kontratu batekin batera eman ez bada, kotizazio-oinarrien gehikuntzaren onura ez da bidezkoa. Beraz, oinarri arautzailea kalkulatzeko erreferentzia-data honako hauetako bat izango da:

- Erretiro arrunta hasten den data, erretiro partzialeko aldi osoan kotizatzeke oinarri errealak zenbatuta, horiek handitu gabe.
- Erretiro partziala hasi zen eguna. Kasu honetan, oinarri arautzailea kalkulatzeko egunetik erretiro arrunta benetan eragiten den egunera arte dagozkion errebalorizazioak aplikatzen zaizkio pentsioari.



ERRETIRO MALGUA

Zertan datza erretiro malgua eta zertan bereizten da erretiro partzialetik eta erretiro aktibotik?

Erretiro partzialaren antzeko erretiro-modalitate bat da, lanaldi partzialeko kontratu batekin bateragarri egiten den heinean, baina aurrekoarekin alderatuta desberdina da, lanaldi partzialeko lanarekin bateragarri egite hori zure erretiro-pentsioa sortu ondoren gertatzen delako. Beraz, erretiro-modalitate hori ezin zaie aplikatu erretiro partzialeko pentsiodunei, oraindik ez daudelako erabat erretiratuta eta ezin delako hura eskuratu lanean jarraitu gabe.

Erretiro aktiboarekin ere badu antzekotasunik, zahartze aktiboa ahalbidetzen dizun neurrian, eta erretiro-modalitate hori aukeratu ahal izango duzu, hain zuzen ere, erretiro aktiborako eskakizunak betetzen ez dituzunean.

Gogoratu Itsasoko Gizarte Institutuari jakinarazi behar diozula zure lan-jarduera hasi duzula, ez jakinarazteak ez dezan eragin pentsioa jarduera horri dagokion zenbatekoan bidegabea izatea eta itzuli egin behar izatea.

Zer eskakizun bete behar ditut erretiro malgurako eskubidea izateko?

Aldez aurretik Itsasoko Araubide Bereziaren erretiro-pentsioa sorrarazi izana eta aldera daitekeen lanaldi osoko langile bati dagokion lanaldiaren % 75 eta % 50 arteko iraupena izango duen lanaldi partzialeko kontratuaren iraupena duen jarduera bat hastea.

Nola eragingo dio jasotzen ari naizen erretiro-pentsioaren zenbatekoari?

Zure erretiro arrunteko pentsioaren zenbatekoa aldera daitekeen lanaldi osoko langile baten lanaldi-murrizketaren alderantzizko proportzioan murriztuko da, % 25 eta % 50 bitartean. Lanaldi partzialeko bi kontratu edo gehiago izanez gero, lanaldi guztien ehunekoak batuko dira.

Pentsioaren gehieneko eta gutxieneko zenbatekoek duten jarduteko moduari dagokionez, murrizketa aplikatu behar zaion zenbatekoa arau orokorren arabera kalkulatzeko den pentsioarena izango da, nahiz eta horrek pentsioaren gehieneko muga gainditu; hori aplikatuko da, baldin eta, kalkulua egin ondoren ere, emaitza gehieneko muga hori baino handiagoa bada. Bestalde, erretiro-pentsio gisa ez

zenuke inoiz kobratuko adin bereko erretiratuentzat une bakoitzean indarrean dagoen gutxieneko pentsioaren zenbatekoari dagokion ehunekoa aplikatzearen ondoriozko zenbatekoa baino txikiagoa, zure familia- eta ekonomia-zirkunstantzien arabera.

Erretiro malguak irauten duen bitartean, ez da ordainduko aurretiazko erretiro arruntak irauten duen bitartean izan daitekeen portzentaje gehigarria edo zenbateko gehigarria (ikus "ATZERAPENA ERRETIROAN").

Zein beste prestazioekin da bateragarria erretiro-modalitate hori?

Erretiro malgua jasotzen duzun bitartean, pentsiodun izaten jarraitzen duzu osasun-prestazioak aitortzeko eta jasotzeko ondorioetarako.

Erretiro malgua bateragarria da lanaldi partzialeko jardueratik eratorritako aldi baterako ezintasunagatik edo amatasunagatik prestazioekin, eta bateraezina da erretiro-pentsioa aitortu ondoren garatutako lan-jardueragatik legozkioken ezintasun iraunkorragatiko pentsioekin.

Zer eragin dute nire erretiro-pentsioan nire lan-jardueratik eratorritako kotizazioek?

Lanaldi partzialeko jardueretan egindako kotizazioek, erretiroa partzialki etenda dagoen bitartean, ondorioak izango dituzte Itsasoko Gizarte Institutuak zure erretiro-pentsioa hobe dezan, lana utzi ondoren. Pentsioaren zenbateko osoa, hobetua hala badagokio, Itsasoko Gizarte Institutuari lana utzi duzula jakinarazten diozunean berrezarriko da, eta horrek kargua utzi eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.



NAHI GABEKO ERRETIRO AURRERATUA

Zer eskakizun bete behar ditut modalitate honen bidez erretiroa hartzeko?

Erretiro aurreratuko modalitate hau aukeratu ahal izango dute besteren konturako langileek, baldin eta honako eskakizun hauek betetzen badituzte:

- Gehienez ere lau urte beteta izatea kasu bakoitzean aplikatzekoa den adinarruntean. Ondoriohorietarako, ez dira aplikatuko zenbait lanbide-sektoretako langileek jarduera nekagarri, toxiko, arriskutsu edo osasungaitzak egiteagatik jaso ditzaketen adin-hobariak, ezta % 45eko edo % 65eko desgaitasuna edo handiagoa duten pertsonen jaso ditzaketenak ere.

Erretiratzeko legezko adin hori zehazteko, halakotzat hartuko da gertaera eragilearen dataren eta kasu bakoitzean aplikatzekoa den erretirorako legezko adina betetzearen arteko epean kotizatzen jarraitu izan balu langileari egokituko litzaiokeena.

- Alta-egoeran edo altaren pareko egoeran egotea.
- Enplegu-bulegoetan enplegu-eskatzaille gisa izena emanda egotea, gutxienez erretiroa eskatu aurreko sei hilabeteetan.


- Gutxienezko kotizazio-aldi hau egiaztatzea:

- 33 urte; horretarako, ez da kontuan hartuko aparteko ordainsariengatik zati proportzionala. Ondorio horietarako, nahitaezko soldadutza, ordezkotza, gizarte-prestazioa edo nahitaezko emakumeen gizarte-prestazioa egiteko aldia bakarrik zenbatuko da, gehienez ere urtebeteko mugarekin.

Kotizazio-aldiak zenbatzeko, aldi osoak hartuko dira kontuan, baina horren zatikia ez da aldi batekin parekatuko.

- Kotizazio-alditik, 2 urte, gutxienez, eskubidea sortu aurreko 15 urteen barruan egon beharko dira, edo kotizatzeke betebeharra amaitu aurreko 15 urteen barruan, baldin eta erretiro aurreratuko pentsioa eskuratzen bada alta-egoera batetik edo altarekin parekatutako egoera batetik, kotizatzeke betebeharririk gabe.

- Lana honako arrazoi hauetako batengatik utzi izana:
1. Kaleratze kolektiboa gertatzea ekonomia, teknika, antolaketa edo ekoizpeneko arrazoiengatik, Langileen Estatutuaren (LE) 51. artikulua araberara.
 2. Arrazoi objektiboengatik kaleratzea, Langileen Estatutuaren (LE) 52. artikulua araberara.
 3. Kontratua ebazpen judizial bidez azkentzea, Konkurtso Legean (maiatzaren 5eko 1/2020 Legegintzako Errege Dekretua) jasotako kasuetan.
 4. Enpresaburu indibidualaren heriotza, erretiroa edo ezintasuna ematea, Langileen Estatutuaren 44. artikuluan xedatutakoari kalterik egin gabe, edo kontratatzailearen nortasun juridikoa azkentzea.
 5. Lan-kontratua azkentzea, Langileen Estatutuaren 51.7 artikuluan ezarritakoaren arabera lan-agintaritzak egiaztatutako ezinbesteko kasua eman delako.
 6. Kontratua azkentzea, langilearen borondatez, Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginaren 40.1, 41.3 eta 50. artikuluetan aurreikusitako arrazoiengatik.
 7. Kontratua azkentzea langilearen borondatez, Langileen Estatutuaren Legearen 49.1.m) artikuluan aurreikusitako genero-indarkeriaren edo sexu-indarkeriaren biktima izan delako.
- 1., 2. eta 6. puntuetan zerrendatutako kaleratzeen kasuetan, langileak egiaztatu beharko du lan-kontratua azkentzearen ondoriozko kalte-ordaina jaso duela, edo demanda judiziala jarri duela kalte-ordain hori edo iraungitzeko erabakia inpugnatzea eskatzeko.



Zenbat geratuko zait erretiro-pentsio gisa?

Pentsioaren zenbatekoa zehazteko, kotizatutako urteen arabera dagokion ehuneko orokorra eta dagokion koefiziente murriztailea aplikatuko zaizkio oinarri arautzaileari.

Kalkulatzen den zenbatekoa murriztu egingo da gertaera eragilearen unean langileari kasu bakoitzean aplikatu beharreko erretirorako legezko adina betetzeko falta zaion hilabete edo hilabete-zati bakoitzeko koadro honetatik ateratzen diren koefiziente hauek aplikatuz, egiaztatutako kotizazio-aldiaren eta aurrerapen-hilabeteen arabera:



	Kotizatutako aldia: 38 urte eta 6 hilabete baino gutxiago	Kotizatutako aldia: 38 urte eta 6 hilabete edo gehiago eta 41 urte eta 6 hilabete baino gutxiago	Kotizatutako aldia: 41 urte eta 6 hilabete edo gehiago eta 44 urte eta 6 hilabete baino gutxiago	Kotizatutako aldia: 44 urte eta 6 hilabete edo gehiago
Erretiroa aurreratzen den hilabeteak	% murrizketa	% murrizketa	% murrizketa	% murrizketa
48	30,00	28,00	26,00	24,00
47	29,38	27,42	25,46	23,50
46	28,75	26,83	24,92	23,00
45	28,13	26,25	24,38	22,50
44	27,50	25,67	23,83	22,00
43	26,88	25,08	23,29	21,50
42	26,25	24,50	22,75	21,00
41	25,63	23,92	22,21	20,50
40	25,00	23,33	21,67	20,00
39	24,38	22,75	21,13	19,50
38	23,75	22,17	20,58	19,00
37	23,13	21,58	20,04	18,50
36	22,50	21,00	19,50	18,00
35	21,88	20,42	18,96	17,50
34	21,25	19,83	18,42	17,00
33	20,63	19,25	17,88	16,50
32	20,00	18,67	17,33	16,00
31	19,38	18,08	16,79	15,50
30	18,75	17,50	16,25	15,00
29	18,13	16,92	15,71	14,50
28	17,50	16,33	15,17	14,00
27	16,88	15,75	14,63	13,50
26	16,25	15,17	14,08	13,00
25	15,63	14,58	13,54	12,50
24	15,00	14,00	13,00	12,00
23	14,38	13,42	12,46	11,50
22	13,75	12,83	11,92	11,00
21	12,57	12,00	11,38	10,00
20	11,00	10,50	10,00	9,20
19	9,78	9,33	8,89	8,40
18	8,80	8,40	8,00	7,60
17	8,00	7,64	7,27	6,91
16	7,33	7,00	6,67	6,33
15	6,77	6,46	6,15	5,85
14	6,29	6,00	5,71	5,43
13	5,87	5,60	5,33	5,07
12	5,50	5,25	5,00	4,75
11	5,18	4,94	4,71	4,47
10	4,89	4,67	4,44	4,22
9	4,63	4,42	4,21	4,00
8	4,40	4,20	4,00	3,80
7	4,19	4,00	3,81	3,62
6	3,75	3,50	3,25	3,00
5	3,13	2,92	2,71	2,50
4	2,50	2,33	2,17	2,00
3	1,88	1,75	1,63	1,50
2	1,25	1,17	1,08	1,00
1	0,63	0,58	0,54	0,50

BORONDATEZKO ERRETIRO AURRERATUA

Zer eskakizun bete behar ditut modalitate honen bidez erretiroa hartzeko?

Erretiro aurreratuko modalitate hau hartu ahal izango dute langileek, baldin eta honako eskakizun hauek betetzen badituzte:

- Gehienez ere bi urte beteta izatea kasu bakoitzean aplikatzekoa den adinarruntean. Ondorio horietarako, ez dira aplikatuko zenbait lanbide-sektoretako langileek jarduera nekagarri, toxiko, arriskutsu edo osasungaitzak egiteagatik jaso ditzaketen adin-hobariak, ezta % 45eko edo % 65eko desgaitasuna edo handiagoa duten pertsonak jaso ditzaketenak ere.

Erretiratzeko legezko adin hori zehazteko, halakotzat hartuko da gertaera eragilearen dataren eta kasu bakoitzean aplikatzekoa den erretirorako legezko adina bete arteko epean kotizatzen jarraitu izan balu langileari egokituko litzaiokeena.

- Altan edo altaren pareko egoeran egotea.
- Gutxieneko kotizazio-aldi hau egiaztatzea:

- 35 urte; horretarako, ez da kontuan hartuko aparteko ordainsariengatik zati proportzionala. Ondorio horietarako, nahitaezko soldadutza, ordezkotza, zerbitzua edo nahitaezko emakumeen gizarte-prestazioa egiteko aldia bakarrik zenbatuko da, gehienez ere urtebeteko mugarekin. Kotizazio-aldiak zenbatzeko, aldi osoak hartuko dira kontuan, baina horren zatikia ez da aldi batekin parekatuko.

- Kotizazio-alditik, 2 urte, gutxienez, eskubidea sortu aurreko 15 urteen barruan egon beharko dira, edo kotizatzeke betebeharra amaitu aurreko 15 urteen barruan, baldin eta erretiro aurreratuko pentsioa eskuratzen bada alta-egoera batetik edo altarekin parekatutako egoera batetik, kotizatzeke betebeharririk gabe.

- Eskakizun orokorrak eta espezifikoak egiaztatu ondoren, jaso beharreko pentsioaren zenbatekoak gauditu egin behar du 65 urte betetzean familia-egoeratik interesdunari legokiokeen gutxieneko pentsioaren zenbatekoa. Bestela, ezingo da erretiro aurreratuaren formula hori baliatu.

Zenbat geratuko zait erretiro-pentsio gisa?

Pentsioaren zenbatekoa zehazteko, kotizatutako urteen arabera dagokion ehuneko orokorra eta, hala badagokio, aplika daitekeen koefiziente murriztailea aplikatuko zaizkio oinarri arautzaileari.

Kalkulatzen den zenbatekoa murriztu egingo da gertaera eragilearen unean langileari kasu bakoitzean aplikatu beharreko erretirorako legezko adina betetzeko falta zaion hilabete edo hilabete-zati bakoitzeko koadro honetatik ateratzen diren koefiziente hauek aplikatuz, egiaztatutako kotizazio-aldiaren eta aurrerapen-hilabeteen arabera:

	Kotizatutako aldia: 38 urte eta 6 hilabete baino gutxiago	Kotizatutako aldia: 38 urte eta 6 hilabete edo gehiago eta 41 urte eta 6 hilabete baino gutxiago	Kotizatutako aldia: 41 urte eta 6 hilabete edo gehiago eta 44 urte eta 6 hilabete baino gutxiago	Kotizatutako aldia: 44 urte eta 6 hilabete edo gehiago
Erretiroa aurreratzen den hilabeteak	% murrizketa	% murrizketa	% murrizketa	% murrizketa
24	21,00	19,00	17,00	13,00
23	17,60	16,50	15,00	12,00
22	14,67	14,00	13,33	11,00
21	12,57	12,00	11,43	10,00
20	11,00	10,50	10,00	9,20
19	9,78	9,33	8,89	8,40
18	8,80	8,40	8,00	7,60
17	8,00	7,64	7,27	6,91
16	7,33	7,00	6,67	6,33
15	6,77	6,46	6,15	5,85
14	6,29	6,00	5,71	5,43
13	5,87	5,60	5,33	5,07
12	5,50	5,25	5,00	4,75
11	5,18	4,94	4,71	4,47
10	4,89	4,67	4,44	4,22
9	4,63	4,42	4,21	4,00
8	4,40	4,20	4,00	3,80
7	4,19	4,00	3,81	3,62
6	4,00	3,82	3,64	3,45
5	3,83	3,65	3,48	3,30
4	3,67	3,50	3,33	3,17
3	3,52	3,36	3,20	3,04
2	3,38	3,23	3,08	2,92
1	3,26	3,11	2,96	2,81


Kotizazio-hilabetei dagokien ehunekoa oinarri arautzaileari aplikatuta ateratzen den pentsioaren zenbatekoari aplikatuko zaizkio koefiziente horiek. Pentsioaren oinarri arautzailea une bakoitzerako ezarritako pentsioen hasierako zenbatekoaren muga baino handiagoa bada, adinaren arabera koefizienteak aipatutako mugaren gainean aplikatuko dira.

Hala ere, erretiro-modalitate hori hartzeko unean langilea langabeziako subsidioa jasotzen ari bada eta gutxienez hiru hilabetez jaso badu, langileari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik (borondatezkoa ez direnak) erretiro aurreraturako aurreikusitako koefiziente murriztaileak aplikatuko dira, aurretik aipatutako eskakizunak betetzeari kalterik egin gabe.

Zenbatekoaren muga:

2024ko urtarrilaren 1era arte, koefiziente murriztaile horiek aplikatu ondoren, ondoriozko pentsioaren zenbatekoa ezingo da izan pentsioaren gehieneko muga ehuneko 0,50 murriztearen ondoriozko zenbatekoa baino handiagoa aurreraturako hiruhileko edo hiruhileko zati bakoitzeko.

“Betikizunak egiaztatu ondoren, jaso beharreko pentsioaren zenbatekoa interesatuari dagokion gutxieneko pentsioaren zenbatekoa baino handiagoa izan behar du.”



ATZERAPENA ERRETIROAN

Zertan datza atzerapena erretiroan?

Erretiro-pentsioa ohiko adinetik gora jasotzen hasten bazara eta, betiere, adin hori betetzean gutxieneko kotizazio-aldia betetzen baduzu, osagarri ekonomiko bat aitortuko zaizu kotizatu duzun urte oso bakoitzeko, pentsio hori jasotzeko eskakizunak bete zenituenetik, eta interesdunak aukeratzen duen moduan ordainduko dira.

- Hautaketa behin bakarrik egingo da osagarri ekonomiko hori jasotzeko eskubidea eskuratzen den unean, eta ondoren ezin izango da aldatu.
- Aurreko ahalmena erabiltzen ez bada, portzentaje gehigarria aplikatuko da.
- Osagarri hori jasotzea bateraezina da zahartze aktiboa izatearekin.

Interesdunak hiru aukera ditu:

- **Ehuneko gehigarri bat**, % 4koa, adin hori bete zuen dataren eta pentsioaren gertaera eragilearen dataren artean kotizatutako urte oso bakoitzeko.

- Ezin da izan une bakoitzerako ezarritako gehieneko pentsio-muga baino handiagoa.

- Aitortutako pentsioaren zenbatekoa aipatutako mugara iristen bada portzentaje gehigarria aplikatu gabe edo soilik partzialki aplikatuta, interesdunak urtero kopuru bat jasotzeko eskubidea izango du. Kopuru horren zenbatekoa une bakoitzean indarrean dagoen muga horren zenbatekoari pentsioaren zenbatekoa zehazteko erabili ez den portzentaje gehigarria aplikatuta lortuko da. Portzentaje hori hurbilen dagoen unitatera biribilduko da, goitik. Zenbateko hori mugaeguneratutako hilabeteen arabera sortuko da, eta hamalau ordainsaritan ordainduko da. Zenbateko horren eta interesdunak aitortuta duen pentsioaren edo pentsioen baturak, urteko zenbaketan, ezin izango du gainditu une bakoitzean indarrean dagoen kotizazio-oinarriaren gehieneko muga, ezta urteko zenbaketan ere.



- Edo **zenbateko bat, oroharreko prezioan**, adin hori bete zuen dataren eta pentsioaren gertaera eragilearen dataren artean kotizatutako urte oso bakoitzeko.

- Langileak erretiro arrunteko adina bete zuen egunean egiaztatutako kotizazio-urteen arabera zehaztuko da.

- Edo aurreko soluzioen **konbinazio bat**, erregelamendu bidez zehazten den moduan.

Atzerapena erretiroan ez da aplikatuko erretiro partzialaren kasuetan, ezta erretiro malguaren kasuetan ere.



NORA JO BEHAR DUT ERRETIROA ESKATZEKO?

Zure eskabidea zure helbideari dagokion Itsasoko Gizarte Institutuaren probintziako edo tokiko zuzendaritzara bidali behar duzu, eredu ofizialean.

Aurrez aurre egin dezakezu, baina Erregistro Elektroniko bidezko zerbitzu bat ere baduzu, Gizarte Segurantzaren egoitza elektronikoan:

<https://sede.seg-social.gob.es>

Zerbitzu honetara sartzeko, ziurtagiri elektronikoa edo cl@ve iraunkorra eduki behar duzu. Horrez gain, eskabide-eredu normalizatuak, ziurtagiriak eta aitorpenak eskuragarri dituzu, Gizarte Segurantzaren web-orriaren bidez:

www.seg-social.es

Horrez gain, eskaera “ISM EN TU BOLSILLO” aplikazio mugikor berriaren bidez aurkezteko aukera duzu.



ARAUDIA

- 8/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bategina onartzen duena.
- 47/2015 Legea, urriaren 21ekoa, Itsasoko eta Arrantzako Sektoreko Langileen Gizarte Babesa Arautzen duena.
- 2/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 23koa, Langileen Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena.
- 20/2007 Legea, uztailaren 11koa, Lan Autonomoaren Estatutuarena.
- 27/2011 Legea, abuztuaren 1ekoa, Gizarte Segurantzaren sistema eguneratzeari, egokitzeari eta modernizatzeari buruzkoa.
- 1131/2002 Errege Dekretua, urriaren 31koa, lanaldi partzialean kontratatutako langileen Gizarte Segurantza eta erretiro partziala arautzen dituen.
- 1132/2002 Errege Dekretua, urriaren 31koa, erretiro-sistema mailakatu eta malgua ezartzeko neurriei buruzko uztailaren 12ko 35/2002 Legearen zenbait agindu garatzen dituen.
- 5/2013 Errege Lege Dekretua, martxoaren 15ekoa, langile zaharren lan-bizitzaren jarraipena bultzatzeko eta zahartze aktiboa sustatzeko neurriei buruzkoa.
- 1716/2012 Errege Dekretua, abenduaren 28koa, Gizarte Segurantzaren sistema eguneratzeari, egokitzeari eta modernizatzeari buruzko abuztuaren 1eko 27/2011 Legeak prestazioen arloan ezarritako xedapenak garatzen dituen.
- 21/2021 Legea, irailaren 28koa, pentsioen erosteko ahalmenaren bermeei eta pentsioen sistema publikoaren finantza- eta gizarte-jasangarritasuna indartzeko beste neurri batzuei buruzkoa.

PROBINTZIA-ZUZENDARITZA	Helbidea	PK	Herria	Telefonia	Posta elektronikoa
ALACANT	C/ Faro de Santa Pola, 2	03001	Alacant	96 512 65 23	alicante.dirprovism@seg-social.es
ALMERÍA	C/ Puerto Pesquero, s/n	04002	Almeria	95 062 02 11	almeria.dirprovism@seg-social.es
ILLES BALEARS	C/ Moll Vell, 15	07012	Palma de Mallorca	97 172 56 06	illesbalears.dirprovism@seg-social.es
BARTZELONA	C/ Albareda, 1 - 13	08004	Bartzelona	93 443 96 00	barcelona.dirprovism@seg-social.es
BIZKAIA	Begoñako Andra Maria kalea, 32	48006	Bilbo	94 473 90 00	bizkaia.dirprovism@seg-social.es
CÁDIZ	Avda. de Vigo, s/n	11006	Cádiz	95 625 17 03	cadiz.dirprovism@seg-social.es
KANTABRIA	Avda. de Sotileza, 8	39009	Santander	94 221 46 00	santander.dirprovism@seg-social.es
CARTAGENA	C/ Muelle Alfonso XII, s/n	30202	Cartagena	96 850 20 50	cartagena.dirprovism@seg-social.es
CASTELLÓ	Pl. Miquel Peris i Segarra, s/n	12100	Castelló de la Plana	96 428 30 72	castellon.dirprovism@seg-social.es
CEUTA	C/ Muelle Cañonero Dato, 20	51001	Ceuta	95 650 02 40	ceuta.dirprovism@segsocial.es
GIJÓN	C/ Celestino Junquera, 19	33201	Gijón	98 532 72 00	gijon.dirprovism@segsocial.es
GIPÚZKOA	Otamendi Anaia kalea, 13	20014	Donostia	94 348 32 00	gipuzkoa.dirprovism@segsocial.es
HUELVA	Avda. Hispanoamérica, 9	21001	Huelva	95 925 74 11	huelva.dirprovism@segsocial.es
A CORUÑA	C/ Ramón y Cajal, 2	15006	A Coruña	88 190 98 00	acoruna.dirprovism@segsocial.es
LAS PALMAS	C/ León y Castillo, 322	35007	Las Palmas Kanaria Handikoa	92 849 46 45	laspalmas.dirprovism@segsocial.es
LUGO	C/ Rda. Músico Xosé Castiñeiras, 10 – bajo	27002	Lugo	98 222 50 10	lugo.dirprovism@segsocial.es
MADRID	C/ Churruca, 2	28004	Madrid	91 591 99 00	madrid.dirprovism@segsocial.es
MÁLAGA	C/ Pasillo del Matadero, 4	29002	Málaga	95 195 57 45	malaga.dirprovism@segsocial.es
MELILLA	Avda. de la Marina Española, 7	52001	Melilla	95 176 43 00	melilla.dirprovism@segsocial.es
TENERIFE	Avda. de Anaga, s/n	38001	Santa Cruz Tenerifekoa	92 259 89 00	tenerife.dirprovism@segsocial.es
SEVILLA	C/ Fernando IV, 1	41011	Sevilla	95 428 60 28	sevilla.dirprovism@segsocial.es
TARRAGONA	C/ Francesc Bastos, 19	43005	Tarragona	97 719 10 00	tarragona.dirprovism@segsocial.es
VALENTZIA	Av. del Port, 300	46024	Valentzia	96 335 99 00	valencia.dirprovism@segsocial.es
VIGO	Avda. Orillamar, 51	36202	Vigo	98 621 61 00	vigo.dirprovism@segsocial.es
VILAGARCÍA	Avda. de la Marina, 23	36600	Vilagarcía de Arousa	98 656 83 00	vilagarcia.dirprovism@segsocial.es



INFORMAZIO GEHIAGO

Web-orria



Egoitza elektronikoa



Deskargatu "ISM en tu bolsillo" aplikazioa



GIZARTERATZE, GIZARTE SEGURANTZA ETA MIGRAZIO MINISTERIOA

Gizarteratze, Gizarte Segurantz eta Migrazio Ministerioaren
argitalpen-programan sartutako argitalpena (2/2020 Errege Dekretua, urtarrilaren 12koa)

Argitalpen honetan paper ekologikoa erabili da,
kontratazio publikoaren ingurumen-irizpideak jarraituz

<https://cpage.mpr.gob.es>



MINISTERIO
DE INCLUSIÓN, SEGURIDAD SOCIAL
Y MIGRACIONES

SECRETARÍA DE ESTADO
DE LA SEGURIDAD SOCIAL
Y PENSIONES



INSTITUTO SOCIAL
DE LA MARINA